

OGP EUSKADI PLAN BERRIAREN EKINTZA-ILDOEN PROPOSAMENERAKO EKARPENAK

FORO ERREGULARREAN ORDEZKATUTAKO GIZARTE ZIBILA – 2021/03/08KO BILERA

Oro har, honako alderdi hauek aipatzen dira:

- Foro irekian jasotako ekarpen gehienak ekintza-ildoetara eramán diren arren, honako ohar hauek egin dira:
 - Ekintza-ildoak mugatzeko edo zehazteko balio izan duten irizpideak ez dira behar bezain ondo azaldu Foro Erregularrean. 2018-2020 Planeko hautaketa-prozesua argiagoa izan zen eta Foro Erregularrak rol aktiboagoa izan zuen.
 - Ildo horretan, irizpideak ondo ezagutu gabe, zaila da une honetan ekintza-ildoak batu / kentzea. Badirudi, batez ere, bi bloke handi daudela (generoari loturikoa eta jasangarritasunari buruzkoa) ekintza-ildo bihurtu gabe. Ekonomia zirkularreko proiekturen bat landu liteke (hiriari, ekonomia sozialari eta abarri loturikoa), edo ordutegiak arrazionalizatzeari eta lana eta familia uztartzeari loturiko proiekturen bat proposatu.
 - Edozelan ere, uste da proposamena bideragarria dela (foro irekiak eta interes instituzionalak proposatutakoaren artean), eta aurreko planeko akats berdinak ez errepikatzen saiatu direla, kasu hartan, beharbada, konpromisoak asmo handiegikoak izan baitziren. Proiektu egingarriago eta neurgarriagoen alde egitea ona izan daiteke.
- OGP Euskadi 2018-2020 Planean garatutako tresna eta ereduak ezartzearen edo ezartzearen gainean dagoen zehaztugabetasunak eragina du plan berrian:
 - Partaidetzarako deialdi berri bat egiteari dagokionez, aurreko planean diseinatutako tresna eta ereduekin zer gertatuko den ez jakitea desmotibatzailea izan daiteke
 - Tresna eta eredu horiek plan berria bideratzen erabiltzeko aukera galtzen da

Hortaz, talde sustatzaileari honako hauek eskatzen zaizkio:

- ekintza-ildoak aukeratzeko erabilitako irizpideei buruzko informazio gehiago (bileran, erabili ahal izan diren zenbait irizpide aipatu dira, hala nola: lidergo instituzionala, erakundeartekotasuna, COVID-19, bideragarritasun teknikoa, irismen mugatua eta abar)
- 2018-2020 planeko tresna eta ereduaren ezarpenari buruzko erabaki bat hartzen denean, Foro Erregularrari jakinaraztea, Plan berriaren ezarpena errazteari begira horiek nola erabili aztertu ahal izateko.
- Planaren gobernantza-eredua gehiago lantzea, OGPri aurkeztu beharreko esparru estrategikoaren barruan, ekarpenak bi alderditan egiteko: aldaketa kulturala erakundeetan eta herritarrak gaitzea eta ahalduntzea.

Egiteke geratzen den lanari dagokionez, uste da Foro Erregularrean honako gai hauek lantzea beharrezkoa dela:

- Ekintza-ildo horiek bete beharko dituzten **irizpideak zein izango diren eta nola definituko diren**, PLAN BERRIKO konpromiso bihurtzeko. Ildo horretan, Foro Erregularrean gizarte zibilak duen ordezkariak uste du plan berriko konpromisoek honako hauek bete beharko lituzketela:
 - Egingarriak –2-3 urtean gainditzeko moduko erronkak izan behar dira– eta, hortaz, zehatzak
 - Inpaktu zehatzak izan behar dituzte (erakundeetan eta herritarrengan) eta, hortaz, neurgarriak izan behar dute

- Bikoiztasunak saihestu behar dituzte (aurreko Planarekin, beste ekimen publiko batzuekin) eta ez dute kontinuitate izan behar; alegia, balio diferentziala izan behar dute
- Planaren esparruaren barruan, finkatze-ekintzak garatzeko aukera eman behar dute, horien garapena Plana itxi baino lehen amaitzen bada
- **Nola landuko da elkarlanean ekintza-ildoen bideragarritasuna:**
 - Zein neurritan eta zer modutan **lortuko da herritarren interesa ekintza-ildo hauetan, planeko konpromisoen azken kopurua zehazteko.**
 - Ildo horretan, aipatzen da erakundeen zein herritarren mailan 5 konpromiso garatzeko ahalegina, beharbada, gehiegizkoa izan zela denborari eta baliabideei zegokienez.
- **Planean zeharkako bi elementu txertatzea** (protokoloaz haratago, modu erreal batean):
 - Genero-ikuspegia – Nola landu genero-ikuspegia Planaren diseinu, ezarpen eta ebaluazioan (edukietan eta lan-prozesuetan)
 - GJH ikuspegia – 2030 Agenda

5 lan-ildoetarako ekarpen zehatzak, horiek zehazten eta eztabaidatzen laguntzeko:

EKINTZA-ILDOA	AUKERA	MEHATXUA
COVID behatokia	Zerbitzuak emateko logika berriak, datu eta interesetan / herritarren eskaeretan oinarrituta – Proaktiboa erreaktiboa bainoago Prebentzio-sistema propio baten alde egitea	Beste behatoki bat izatea Anlisi gehiegi eta balio praktiko gutxiegi
Gardentasuna eta kontu-ematea	Aurrekontu-gardentasuna jorratzea Parte hartzeko aurrekontu-prozesuekin lotzea – Herritarrek aurrekontu-prozesua hobeto uler dezaten laguntzea, partaidetza hobea lortzeko	Jada garatutakoari erantzen dion balio diferentziala – Jarrera kontinuitate batean ez erortzea
Open eskola edukiak garatzea	Foro irekian sortu diren gaietako asko jorratzea Eredua zehatzera ekartzea: adibidez, arrakala digitala lantzea Open eskolaren eredua erabiltzea partaidetza sustatzeko	Jada garatutakoari erantzen dion balio diferentziala – Jarrera kontinuitate, gai asko barnean hartuta Definitutako ereduaren ikuspegia galtzea – Open eskola ez da «herritarrentzako» eredu bat
Legegintzako Herri Ekimenaren tresna	Herritarrei proposamenak egiteko tresna bat ematea Software librearen logikan oinarritzea Geruza teknologikoaz haratago garatzea – Gaikuntza eta sozializazioa	Tresna bat garatzeak ez du zertan ekarri eragiteko / ondorioak izateko ahalmen handiagoa – Legegilean lan pedagogikoa eginez osatu behar da
Adinduentzako onlineko eta offlineko zerbitzua	Erroka demografikoari erantzuna ematea – Proposamen asko foro irekian Beharra (bizi-proiektuaren orientazioa) hor dago	Pertsona adinduei arreta ematean soilik oinarritzea lana Zehaztugabetasuna dago ematen den zerbitzu motaren inguruan – Zein da azken produktua